

PLAZA BERRI

ZIZURKILGO HERRI ALDIZKARIA

16-3-29 17.ALEA

Kutxabanki
eskaera bateratua

2. ORR. >>

2016ko
aurrekontuak

4. ORR. >>

Urte hasiera
iruditan

11. ORR. >>

Plazida Otaño,
Aiztondoko
liburutegia

6. ORR. >>

Kutxazaina berriz jartzearen aldeko aldarria

Bi hilabete hauetan hamaika ekimen egin dira Kutxabankek bere erabakian atzera egin dezala eskatuz.



Urtarrilaren 29an, aurrez abisurik eman gabe kendu zuen Kutxabankek herrian zuen kutxazain bakarra. "Udaletik ez genekien ezer, eta segituan ohartu ginen erabakiaren larritasunaz, bai bezero diren herritarrentzat, eta baita merkatarientzat ere", gogoratu du Joxe Mari Luengo alkateak. Harez geroztik hamaika bilerak, sinadura bilketa eta udalbatzak aho batez onartutako mozio bat ere izan dira. "Astebeteko epean

Udalak kutxazaina berrezartzeko proposamena egin zion Kutxabanki eta finantza erakundeak beste astebetean erantzuteko konpromisoa hartu zuen. Ez zen erantzunik etorri, azkenean, proposamenaren inguruko xehetasun batzuk argitzeko beste batzar bat egin genuen. Batzar berri horretan erantzuna emateko jarritako epea ere ez zuten errespetatu Kutxabanketik", adierazi du hase-rre alkateak.

Sinadura bilketa

Kutxazaina kendu bezain pronto, zenbait herritar eta merkatariren ekimenez sinadura bilketa jarri zen abian. Hilabetearen 700 herritarren sinadurak lortu dira. Norabide berean, otsailaren 24an Udalbatzak aho batez EH Bilduk proposatutako mozioa onartu zuen. Mozio horretan Kutxabanki atzera egiteko eskatzen zaio azpimarraz, besteak beste, Zizurkil baztertzeko duen erabakia dela, eskualdeko herri txikiagoetan kutxazainak bai baititu Kutxabankek. Udalbatzak finantza erakundea ohartarazten du bere diru kontuen inguruko erabakiak hartuko dituela atzera egin ezean.

Erantzuna iristen ezenez, martxoaren 9an Udalordezkariak eta merkataria-

elkarrekin joan ziren Villabonan Kutxabankek duen bulegora. Udalbatzaren mozioa eta 700 sinadurak eraman zituzten. "Kutxabankek egin beharreko gutxienezkoa da kutxazaina berrezartzea", nabarmendu zuten guztiek.

Kontaktu gehiago

Azken egunetan kontaktu gehiago izan dira finantza erakundearen eta Udalaren artean. "Zailtasunak zailtasun, baikor izan nahi dugu, herri guztia atzean dugula ikusi baitu Kutxabankek. Gure proposamenarekin, herriak zerbitzu bat ez galtzea eta bertako komertzio bizitza lehenetsi ditugu. Era berean, argitu behar da proposamen berbera beste finantza erakundeei ere aurkeztu diegula", azaldu du Luengok.

Unidos para solicitar la reposición del cajero

Hace dos meses que Kutxabank retiró el único cajero que había en Zizurkil. "No informaron a nadie de la decisión y, enseguida, nos dimos cuenta de lo que suponía su retirada", recuerda el alcalde Joxe Mari Luengo. "En pocos días el Ayuntamiento presentó una propuesta para

reponer el cajero y desde la entidad prometieron responder en una semana. No hubo respuesta pero se sucedieron otras reuniones con Kutxabank donde hablamos sobre los detalles de la propuesta municipal. Sin embargo, seguimos sin una respuesta firme", se lamenta el alcalde.

Firmas

Mientras tanto, en los comercios se puso en marcha una recogida de firmas que en un mes recogió 700 firmas de los y las zizurkildarras. Del mismo modo, el Ayuntamiento aprobó por unanimidad una moción en el pleno del 24 de febrero. Ante el silencio de Kutxabank, el 9 de marzo los

comerciantes y representantes municipales acudieron juntos a la oficina de Villabona, a entregar las firmas y la moción. En los últimos días los contactos continúan. "Es difícil, pero estamos esperanzados por el trabajo conjunto que estamos realizando, ya que Kutxabank ve que tiene que responder a todo un pueblo".

ALBISTEAK

Urak gainezka eginda otsailaren 27an

Otsailaren 26 gauean botatako euriek ordu batzuetan urak gainezka egitea ekarri zuten Joxe Arregi plaza inguruan, treneko tunela une batzuetan urpean utziz. Gertakariak ez zuen ondorio larrik utzi baina agerian utzi du ezinbestekoa dela Zizurkilgo Udala behin eta berriz Eusko Jaurlaritzako Ura Agentziari eskatzen ari zaiona, Asteasu erreka bideratzeko lanak lehen bait lehen egitea, alegia. "Villabonako zatia eta Zubimusuko bi begien zabaltzea amaitzean, hurrengo Zizurkilgo zatiak izan beharko luke, uholdeen gaia betirako ahaztu dezagun", nabarmendu dute Udal gobernutik.

Pequeñas inundaciones

Las aguas volvieron a salir de su cauce a la altura de la plaza Joxe Arregi el 27 de febrero. Las consecuencias no fueron importantes pero desde el gobierno municipal remarcen que lo ocurrido demuestra la necesidad de realizar el encauzamiento del río Asteasu Erreka cuanto antes. "Cuando el gobierno vasco finalice las obras en Villabona, debería ser el siguiente tramo, esa es nuestra petición".



Feminismoaz, Aizan taldearekin

Hilabete amaiera oro, gai ezberdinen inguruan gogoeta egiteko proiektio eta hitzaldiak antolatzen ditu Zizurkilgo Aizan talde feministak. "Amatasuna eta feminismoa" izan dute azken gaia.

Apirilaren 9an txakur krosa Zizurkil

Eneko Agirre musher zizurkildarrak eta Udalak elkarlanean antolatuta, apirilaren 9an lehendabiziko aldiz egingo da Zizurkil txakur krosa. Ibilbidea zehazten ari dira egun hauetan, Zizurkil Goiko herrigunearen inguruan izango da eta 4-5 kilometro inguru izango ditu. Hiru irteera ezberdin izango dira. 18:00etan, errelebokako lasterketa abiatuko da, eta hiru korrikalarik parte hartuko dute: korrika, bizikletan eta patinetean. 19:00etan, hiru musherrek zortzi txakurreko trineoetan erakustaldia egingo dute. Azkenik, 20:00etan txakur krosa izango da. Izen ematea zabalik dago dagoeneko herri krosa web gunean. Egunean bertan ere izango da izena emateko aukera.



El 9 de abril, por primera vez se celebrará un cani cross en Zizurkil. Partirá de la plaza P.M. Otaño y esta siendo organizado por el musher zizurkildarra Eneko Agirre y el ayuntamiento.

«Liburutegian agindutako diru laguntzak iritsi ez direnez, Udalak ekarpena handitu behar izan du»

Apirileko lehen astean onartuko dira 2016ko aurrekontuak. 3 milioi euroko aurrekontua izango du Zizurkilek, iaz baino ia 300 mila euro gutxiago. "Ez dira aurrekontu errazak izan, Aiztondoko liburutegian agindutako diru laguntzak iritsi ez direnez, Udalak ekarpena handitu behar izan duelako. 281.560 €ko ekarpena aurreikusi dugu azkenean, lanak bukatzeaz gain zerbitzua martxan jartzeko beharko dena", azaldu du Joxe Mari Luengo alkateak. Diru sarreretan 300.000 euroko murrizketa, berriz, erraza da azaltzen. "Iaz jaso genuen Aldunditik liburutegirako 250.000 euroko diru

partida eta Jaurilaritzatik igogailua egiteko beste laguntza bat ere bai, aurten inbertsiorako agindutako laguntzarik ez dugu momentuz", zehaztu du.

Liburutegia

Bi zatitan egin da Zizurkilen kokatuko den Aiztondoko liburutegia. "Iazkoa Udalak jarritako zati txiki batekin eta bereziki Gipuzkoako Aldundiaren ekarpenarekin egin zen, 2014an Gipuzkoako aurrekontu parte hartzaileetan diruz babestea erabakitako proiektu bat izan baitzen. Aurtengorako Eusko Jaurilaritzarekin negoziatzen izan gara baina azkenean lege-

biltzarrera jotzeko esan ziguten. Legebiltzarrean 150.000 euroko dirulaguntza eskaera aurkeztu zen proposamen landu batekin Aiztondoko liburutegia zer den azalduz, baina azken unean iritzia aldatu eta PNV eta PSE ez zeuden laguntza hori ematearen alde. Zenbatekoa negoziatu eta bi epetan ematea ere proposatu zuen EH Bilduk baina ezezkua izan da erantzuna. Gauzak honela, Udalak jarri behar du dirua", nabarmendu du Luengok. Horrek aurrekontuetan eragin nabarmena izan du, "Beste inbertsio batzuk atzeratuko dira, baina jarraituko dugu diru laguntza duina borrokatzen, horrelako

Baldintzatuta

2016ko aurrekontua iazkoa baino %10 txikiagoa izango da, eta liburutegi berriko lanak izango dira inbertsio nagusia

Unos presupuestos condicionados

El presupuesto de 2016 es un 10% menor que el de 2015. Un presupuesto de 3 millones de euros, cuya principal inversión es la nueva biblioteca de Aiztondo. "El Ayuntamiento ha tenido que hacer un esfuerzo extra. La

biblioteca se ha financiado en dos fases: una, el año pasado, gracias a la aportación de la anterior diputación de Gipuzkoa, ya que fue uno de los proyectos elegidos a nivel de Tolosaldea en los presupuestos participativos; para

este año, el Ayuntamiento tenía previsto realizar una inversión que se complementaría con la ayuda del Gobierno Vasco, pero en el último momento nos propusieron plantear el proyecto en el Parlamento Vasco. El proyec-

to fue acogido con buenas palabras, pero el 22 de marzo, PNV y PSE rechazaron la subvención para la biblioteca. Esto obligará a retrasar otras inversiones como la cubierta de la plaza" lamenta el alcalde.

ko aurrekontuak

proiektu kultural bateratu bat ez laguntzea lotsagarria iruditzen zaigu”.

Plazako estalpea da atzeratzen ari den inbertsioetako bat. “Gremio guztiekin hitz egin eta aurrekontu zehatzaren zain gaude, *renting* bidez egin ote daitekeen ikusteko. Liburutegiko lanak amaituta, hurrengo litzateke Joxe Arregi plazan”.

Honekin batera, beste inbertsio txiki batzuk jasotzen dira, Udalaren eskumena diren landa errepideetara bideratuak. “Urtero saiatzen gara landa bideren bat konpontzen. Aurten Zizurkil behetik hilerrira doan bidea konponduko dugu, Iturralde aldera doana ere bai, egoera txarrean baitago”, nabarmendu du Aitor Sarasua nekazaritza zinegotziak. 50.000 euroko aurrekontua jasoko da horre-

tarako. Horrez gain, Arizmen-diko bidean egiteke geratu zen bihurgunea zuzentzeko lanak ere burutuko dira.

Zizurkilgo plaza

Udaletik lehenetsi den beste inbertsioa, Zizurkilgo P.M. Otaño plazakoa da. “Erabaki dugu ezin dugula itxaron. Lehen etxebizitza proiektuari lotzen genion berritzea baina ezin dugu zain egon. Osotasunean berrituko da urte bukarean hasita eta 2017an amaituz. Horrela diruaren zati bat aurtengo aurrekontuetatik bideratuko dugu eta beste bat hurrengoetatik, liburutegiarekin egin dugun bezala. Osotara 125.000 euroko aurrekontua du, bai lurra eta bai gainontzeko azpiegitura (bankuak, argia...) ezartzeak. Zuhaitzaren gainean berriz, herritarrekin parte hartze prozesua egi-

teko asmoa dugu zer egin edo zer zuhaitz jarri erabakitzeko”.

Gainontzean, aldaketa handirik jasotzen ez duten aurrekontuak dira. “Azken urteetan izoztuta izan ondoren, langileei %1 igoko zaie soldata, legeak uzten digun gehiena da. Horrek igoera bat ekarri du langileen partidan. Bestelakoan, batzordeenak bere horretan mantenduko dira, gutxi gora behera”.

Zorra

Urtez urte, aurrekontua mugatzen duen elementu nagusietako bat zorra da. Udala etengabe ari da zorra murrizten azken 5 urteetan, 2011tik aurrera ez baitu mailegurik eskatu. 2015 urtea milioi bat eta sehieun mila euro euroko zorrarekin amaitu du Zizurkilgo Udalak. “Aurten ere inbertsio handiena baino gehiago, ia

300.000 euro bideratuko ditugu soilik zorra ordaintzera. Honek beti mugatzen gaitu aurrekontuak egiteko orduan, baina urteotan guztietan Udalak ikasi du jasotzen duenaren arabera gastatzen, ez lehen egiten zen moduan”, nabarmendu du Luengok.

Inbertsio nagusiak Inversiones principales

Liburutegi berria
280.560€
La nueva biblioteca

P.M. Otaño plaza
Partida irekita
Plaza P.M. Otaño

Hilerriko bidea konpontzea
50.000€
Asfaltar el camino
al cementerio

Plaza

Otra inversión reseñable es la renovación de la plaza P.M. Otaño. “No podemos esperar más. Se renovará por completo comenzando el fin de año y terminando el 2017. Así, una cantidad de dinero será desti-

nado de los presupuestos de este año y el restante del año próximo. En total, tiene un presupuesto aproximado de 125.000 €”, explica el alcalde. Hay otras inversiones menores en cuantía, como el acondicionamiento de la carretera

al cementerio, que es competencia municipal.

La deuda sigue siendo otro obstáculo a la hora de realizar los presupuestos. “Terminamos el año 2015 con un millón y seiscientos mil euros de deuda con los bancos; en

cuatro años la hemos reducido a la mitad, pero entendemos que debemos seguir sin endeudarnos, gastando de lo que tenemos. Este año sólo para pagar la deuda destinaremos casi 300.000 euros”, explica Luengo.

Bailarako sortza izan nahi

«Larunbat goizak, liburutegia zabalik izateaz gain, familiei zuzendutako ekintzak antolatzeke erabiliko ditugu»

“Teknologia berriekin ekipatutako liburutegia izateaz gain, Aiztondoko kultur sortzaileen elkargune eta bozgorailu izan nahi du Aiztondoko Liburutegiak”. Era honetan eta aho batez azaldu dute azpiegitura berriaren xedea proiektua mamitu duten zinegotzi eta teknikariek. Ainhoa Larrea kultura teknikaria, Arantxa Zabala liburuzaina, Maite Amenabar alkate ordea eta Alaitz Ormazabal eta Leire Zubeldia kultura eta parte hartze zinegotzi ohiak elkartu dira Plazaberriekin zerbitzu berriaz hitz egiteko.

“Bidea luzea izan da, ate



Aiztondoko Udaletako hainbat alkate liburutegiko bileran.

asko jo behar izan ditugu, eta proiektua aurrera aterabada, Zizurkilgo Udalak proiektuaren aldeko apustu sendoa egin duelako izanda”, adierazi dute. Issuru arkitektu taldeak diseinatu du espazioa. 413.000 euro kostatu da azpiegitura. 250.000 euro aurreko Gipuzkoako Aldundiak martxan jarritako aurrekontu parte hartzaileen bidez lortu zen, eta gainontzekoa Udalak jarri behar izan du, momentuz. “Zizurkildar asko gerturatu zen aurrekontu parte hartzaileak erabakitzekeo batzarretara Aiztondoko liburutegiaren proiektua defendatzera. Esan dezakegu, herritarren parte hartzeari esker dugula liburu-

tegi berria”, gogoratu dute Alaitz Ormazabal eta Leire Zubeldia zinegotzi ohiek. Finantzaketa osatze aldera, Aldundiko beste sailatar eta Eusko Jaurlaritzako kultura sailera ere gerturatu dira. “Instituzio guztietan oso harrera ona egin diote proiektuari, batik bat, bailarako herriek elkarbanatuko duten azpiegitura bat bezala planteatu delako, baina oraingoz ez dugu diru laguntza gehiago lortu”. (Ikus aurrekontuen atala).

Bailarako herrien batzordea

Proiektu honen jatorria krisi garaian kokatu dute Ainhoa Larrea eta Arantxa Zabala teknikariek: “Dirurik ez dagoenean sormenari

heldu behar zaio eta horrela bururatu zitzaigun liburutegi amankomunaren ideia. Herri txiki batek ez dauka liburutegi zerbitzu osatu bat ordaintzeko nahikoa baliabide; aldiz, denek indarrak batuz gero, kalitatezko zerbitzu bat osatu genezake guztiontzat”. Ideia honekin eta proiektuarekin bat egin zuten hasieratik Larraul, Alkiza, Aduna eta Asteasuko Udalek, eta guztiek batera osatu dute Aiztondoko liburutegia edukiz mami-tzeko batzordea. “Herri txiki bakoitzak bere biztanleen beharrak ekarri ditu batzordera eta hauek zerbitzu berriaren bidez nola asetu erabakitzen joan gara”, azaldu du Maite Amenabar

maileen bozgorailu duen liburutegia

Apirilaren 23an, liburuaren egunarekin batera zabalduko ditu ateak Joxe Arregi Plazan kokatuta dagoen liburutegi berriak. Aiztondo bailara osoari eman nahi dio zerbitzua.

6

alkate ordeak. Batzorde honetan jasotako beharren artean, herri bakoitzeko kultur programa bilduko duen pantaila informatiboa, herri bakoitzaren tokiko bilduma liburutegian eskuragarri jartzea edo eta herrietatik jaisteko garraioa eta liburutegiaren ordutegiak bateratzea daude.

Emakumeen isilpeko lana

Liburutegiaren izanarekin batera, izena ere aipatu batzordean erabaki dute: Plazida Otaño Aiztondoko Liburutegia. "Ez gaude ohituta, kaleetan edota eraikin publikoetan emakumeen izenak ikustera. Bada garaia joera hori aldatzeko, eta are gehiago aitortza hori merezi duten emakumeak baldin baditugu", azaldu dute. Ildo horretatik, liburutegiari jarri dioten izena "mendeetan zehar, emakume sortzaileek egin duten isilpeko lanari keinua da". Larrearen hitzetan, "oraintxu jakin dugunez, Plazida Otaño zizurkildarra bertsolaria zen; errepublikazalea izanik, politika asko

interesatzen zitzaion; bada-kigu emakume jantzia zela, hausnarketarako gaitasuna zuena" (ikus 10. Orria). "Honenbestez, liburutegiaren izaera ondo baino hobeto islatzen duela iritzita erabaki dugu Plazidaren izena jartzea" borobildu du Zabalak.

Larunbat goizetan zabalik

Liburutegi berriak erabiltzaileei eskainiko dien zerbitzua azaltzerako garaian, lehenengo berezitasun bezala guneak izango duen "ordutegi zabalak" aipatu du liburuzainak: "Astean zehar goizeko eta arratsaldeko ohiko ordutegia izango dugu, baina larunbat goizetan ere zabalduko dugu liburutegia". Ordutegiaren luzapen hori asmo zehatz batekin egin dute gainera: bailaran antolatzen diren ekintzekiko osagarritasuna aurkitzea. "Astean zehar, haur eta gazteak lanpetuta ibiltzen dira eskolaz kanpoko ekintzak tarteko; gainera, inguruko liburutegietan antolatzen diren ipuin kontake-

Apirilak 23

Plazida Otaño Aiztondoko Liburutegiaren inaugurazioa eta ate-irekiak

11:30: Inaugurazio ekitaldia:

Bukalai dantza taldea eta Loatzo musika eskolako musikarien parte hartzearekin gonbidatuei ongi etorria, sarrera hitzak eta luntxa.

Ondoren, Maria Altuna artista zizurkildarraren erakusketaren inaugurazioa.

Gela Balioanitzean, Bailarako eta bertako aktibitate eta bizitzari buruzko etengabeko bideo emanaldia.

13:00etan: Helduei zuzenduriko istorio kontaketa.

14:00etan: liburutegia itxiko da.

16:00etan: 0-5 urte bitartekoentzat ipuin kontaketa.

17:00etan: 6-8 urte bitartekoentzat ipuin kontaketa.

18:00etan: 9 urtetik gorakoentzat ipuin kontaketa.

19:00etan: Jubilatuei zuzenduriko kontaketa.

20:00etan: itxiera.

tak zein bestelakoak ere aste barruan izaten dira", azaldu du Zabalak. "Hori dela eta, larunbat goizak liburutegia zabalik izateaz gain, familiei zuzendutako ekintzak antolatzeke erabiliko ditugu". Ikasleei dagokienez berriz,

azterketa garaian ordutegi zabalagoa eskainiko dutela ere adierazi dute.



Liburutegia adin guztietako erabiltzaileei zerbitzua emateko prestatuta dago, adin tarte bakoitzak bere txokoa eta bere baliabideak

«Herri txiki bakoitzak bere biztanleen beharrak ekarri ditu batzordera eta hauek nola asetu erabakitzen joan gara»

izango dituelarik. 0-3 urtekoentzako "txiki-txoko" deitu dioten bebeteka daukate, guraso eta haurtxoek liburuaren bueltan konpartituko duten gunea. 4-12 urte artekoentzat pentsatutako gunea berriz haur txokoa da, irakurketarako gunea, mahaiak, bi ordenagailu eta DVD erreproduktorea-ekin. Gazte eta helduek

berriz, beharren arabera aukera ugari dituzte: "Gune dinamikoa deitzen diogun espazioan, (harrera ere bertan dago) hemeroteka, bideoteka eta lan mahaiak egongo dira. Internetarako konexioa, katalogoa kontsultatzeko ordenagailuak, tableta, inprimagailua, eskanerra eta fotokopia zerbitzua izango dute hemen.

Gune isila deitzen diogun lekuan berriz, ikasgela eta areto balioanitza daude: lehenak 36 plaza ditu, ikas-mahai bakoitzak internetarako konexioa duelarik; gela balioanitza, 30-40 lagun ingururentzat egokitua, hitzaldiak, tertuliak, proiektzioak eta formatu txikiko era honetako ekintzak egiteko azpiegitura da. Udal bulegoak ere gune



La nueva biblioteca aspira a ser el altavoz de la actividad cultural de la comarca

El 23 de abril, coincidiendo con el día del libro, abrió sus puertas la nueva biblioteca que, aunque esté ubicada en la Plaza Joxe Arregi de Zizurkil, pretende dar servicio a toda la comarca de Aiztondo.

Plaza Berri ha charlado con la técnica de cultura Ainhoa Larrea, la bibliotecaria Arantxa Zabala, la teniente alcalde Maitte Amenabar y las ex ediles de cultura y participación Alaitz Ormazabal y Leire Zubeldia. Todas han sido participes en

el camino que han tenido que recorrer para que el proyecto se haga realidad. "Hemos tenido que tocar muchas puertas en busca de financiación; y, si el proyecto ha salido adelante, es gracias a la apuesta que ha hecho el Ayuntamiento de

Zizurkil", aclaran. En total, las obras de la biblioteca han costado 413.000 euros, de los cuales 250.000 se han financiado a través de los presupuestos participativos que puso en marcha la anterior Diputación Foral de Gipuzkoa. En cambio, las pe-



honetan egongo dira, baina sarrera plazatik izango dute.”, azaldu du Arantxak.

Gune dinamikoa eta gune isila bereizten dituen pasabide luzeak ere badu bere funtzioa: erakusketa jartzeko erabiliko dute. Larreak azaldu duenez, “artista gazteei zuzendutako espazioa izango da. Hilabetero erakusketa ezberdin bat jar-tzea da asmoa. Horretarako oinarri batzuk jarriko ditugu, eta hauek betetzen dituen erakusketa-proiektuak aurkezteko aukera izango du edonork”. “Alor bateko, zein

besteko, bailarako kultur sortzaileei euren lana erakutsi eta zabaltzeko misioa du iparorratz”, berritsi dute. Era berean, sortzaileetat jotzen dituzte herriko eta bailarako eragileak ere. Azpiegitura erabili eta zukua ateratzeko gonbidapena luzatu die Maite Amenabar alkate ordeak. “Horretarako ordea, lehenik gunea eta eskaintzen dituen aukerak ezagutu behar dira. Hain zuzen ere, espazio berria ezagutzera emateko xedearekin antolatu dute apirilaren 23an ate irekien jardunaldia (ikus

Maiatza Saltsan, aurrerapena

Liburutegi berria ezagutzera emateko asmoz, ekintza ugari antolatuko dira hilabeteko kultur programazioan. Dena ordea ez da espazio honetara mugatuko. Maiatzeko egutegian bi egun gorri margotuak daude:

Maiatzak 7, larunbata:

Europako Musika eskolen topaketa. Donostia 2016 programaren barruan, Europatik etorritako musika eskola ezberdinek, Loatzoko Musika Eskolarekin batera emanaldi berezia eskainiko dute.

Maiatzak 14, larunbata:

Dantzari Txiki eguna. Bukalai dantza taldean antolatuta, dantzari txikien bilgunea izango da Zizurkil. Gauean Alurr dantza taldearen emanaldia izango da, eta Bukalai dantza taldeko dantzari helduenek emanaldian parte hartuko dute.

egitaraua). Aurtengo Maiatza Saltsan egitaraua ere Plazida Otaño Aiztondoko Liburutegiaren inguruan ardaztuko da: “Beste ekintza ugari artean, bailarako ikasleek es-

pazioa ezagutu dezaten bisi-tak antolatuko ditugu”, aurreratu dute. Dena prest dago, apirilaren 23an, Aiztondok bere liburutegi berria estreinatu dezan.

tiones de ayuda realizadas al Departamento de Cultura del Gobierno Vasco y en el Parlamento de Gasteiz no han tenido éxito, ya que el PNV y el PSOE han votado en contra de subvencionar dicho proyecto (Ver Páginas 4 y 5).

La comisión de los pueblos de Aiztondo

Los pueblos de la comarca de Aiztondo también han sido clave para lograr la subvención mencionada de la Diputación. “Un pueblo pequeño no tiene suficientes recursos para dar un servicio de biblioteca de calidad, y menos en tiempos de crisis. Por ello, optamos hacer una sola biblioteca para toda la comarca que satisfaga las necesidades de todos los usuarios y usuarias”, comentan. Los

ayuntamientos de Larraul, Alkiza, Aduna y Asteasu vieron con buen ojo la idea y han trabajado en el proyecto desde el principio. Los representantes municipales de cada pueblo se han reunido periódicamente en una comisión y cada uno de ellos ha hecho aportaciones partiendo de las necesidades de los habitantes de su pueblo.

Plazida Otaño Aiztondoko Liburutegia

Es el nombre que han escogido para la biblioteca. “No estamos acostumbrados a ver nombres de mujeres en los callejeros y en los edificios públicos, pero ya es hora de cambiar eso”, reclaman. “Plazida Otaño era una bertsolari zizurkildarra del siglo pasado. Le hemos puesto su nombre a la biblioteca para

hacer un guiño a las mujeres creadoras que han pasado desapercibidas”.

Abierto los sábados

No sólo entre semana, los usuarios y usuarias tendrán la oportunidad de utilizar el servicio los sábados por la mañana. “Programaremos actividades para las familias los sábados, ya que durante la semana los más jóvenes suelen tener la agenda muy apretada”, aclara Arantxa Zabala. En la época de exámenes ampliarán el horario para que los estudiantes puedan utilizar la sala de estudios. Los más pequeños (0-3), podrán utilizar la bebeteca; los usuarios entre 4 y 12 años también tendrán su espacio con dos ordenadores y un reproductor DVD; los estudiantes tendrán opción de

utilizar las mesas de trabajo o la sala de estudios; y aparte de todo esto el servicio dispone de hemeroteca, videoteca, ordenadores para consultar el catálogo, impresora, escáner, fotocopidora, y acceso a internet. Otro espacio importante es el aula polivalente que permitirá programar tertulias, proyecciones, charlas y actividades de formato pequeño. Por último, disponen de un espacio para exposiciones. “Queremos que las asociaciones de Zizurkil y de la comarca utilicen estas infraestructuras y, para ello, el primer paso es acercarse a conocer la nueva biblioteca de Aiztondo”, comenta la teniente alcalde Maite Amenabar. Todos y todas tendrán oportunidad de conocer el espacio el día 23 de abril.

Plazidaren bila

Pello Mari Otañoren lehengusua izatetik, bere izen eta abizenei bertsolaritzan zuten lekua aitortu zaie: Plazida Otaño zizurkildararen bertsoek mito bat baino gehiago eraitsi dituzte.

Martxoaren 4an Plazidatik Plazara emanaldia eskaini zen Zizurkilgo Iriarte kultur etxean. Emakume bertsolarien lanak oro har, eta bereziki, Plazida Otaño gehiago ezagutzeko aukera eman zuen Estitxu Eizagirre kazetariak, Unai Mendizabal bertsolariak eta Maddi Etxeberría eta Malen Otxoa musikariek eskainitako saioak.

Emakume Langilearen Nazioarteko Egunaren haritik egin zen saioa. Udaletik Estitxu Eizagirrerri egin zitzaion proposamena Plazida Otañoren arrastoa jarraitzeko, emakume bertsolarien inguruan Argiako zuzendariak egiten duen jarraipena dela-eta. Otañoren hurbileko bertsozaleekin eta senitartekoeekin arituda hartu-emanen Eizagirre. Era berean, Aita Zavalak Auspoa sailleko Otaño eta bere ingurua liburuan bil-

dukako bertso eta kontakizunak jaso ditu.

Plazidaren pausoak jarraituz

1867an jaio zen Plazida Otaño Zizurkilgo Errekalde baserrian. Bertso munduan erabat murgilduta hezi zen, aitona Pedro Mari Otaño *Errekalde Zarra*, aita Jose Bernardo Otaño *Baria* eta lehengusua Pello Maria Otaño baitzituen. Ezkonduta, Zizurkilgo Benta baserrian jarri zen bizitzen, 1954an hil zen arte. Argian bildutako informazioaren arabera, izaeraz bertsolari kasta zuen Plazidak Teodoro Mujikaren hitzetan. Politikaz ere pasioz hitz egiten omen zuen eta Benta baserrian izaten ziren eztabaidak ere kanpotik entzuten ei ziren Eizagirrek azaldu digunez.

Plazidaren bi bertsoaldi iritsi zaizkigu gaurdaino:

bata aitarekin elkartrukatutakoa eta bestea Txirritari botatakoa. "Bertsoen mailek erakusten dute maiz egiten zuela bertsoan", eta bertso horiekin bi mito eraitsi direla gaineratu du Eizagirrek: "bata, etxean ere bertsoan egiten zela eta gune horretan emakumeek zein gizonek kantatzen zutela; eta bestea, sexuaz eta gizonezko bati erantzunaz ere egiten zutela emakumeek". Izan ere, sexua du hizpide iritsi zaigun bertso horietako batek. "Aita Zavalaren liburuan gauza asko zeuden jasota, baina genituen erreferentzia guztiak elkarren ondoan jarri behar ziren eta irakurketa horra bideratu behar zen haren berri izateko, hausnarketa feministara edo Plazidaren bila". Eta Plazidaren bila ekinaz, topatu dugu oraingoz ezagutzen dugun bat-bateko lehen emakume bertsolaria.

En busca de Plazida

Plazida Otaño nació en 1867 en el caserio Errekalde de Zizurkil, en una cuna de bertsolaris consagrados como Pello Mari Otaño. Gracias al trabajo de Estitxu Eizagirre, directora de Argia que ha realizado una gran labor averiguando el rol de la mujer en bertsolaritza, sabemos que Plazida también tenía el don de la palabra y el bertso. Con los dos bertsos

de Plazida que han perdurado hasta el día de hoy, entendemos que, aunque las mujeres no cantaban en lo que se conocían como las plazas habituales, lo hacían en casa y que compartían esas dialécticas de bertsos con hombres, además de atreverse a cantar sobre temas como el sexo. Es un símbolo de una generación olvidada.

Urte hasiera argazkitan

2016 hasiera honetako zenbait ekitalditako argazkiak bildu ditugu: Inauteriak, Txapel Eguna eta Gazte Eguneak.



Joxe Arregi plazan elkartu ziren 3 ikastetxeetako haurrak euren mozerroak erakusteko, giro bikaina jarritz.



Bukalai dantza taldeak emanaldi arrakastatsua eskaini zuen Txapel Egunean.



Benardo Arregik Arantxi Usabiagaren eskutik jaso zuen txapela.



Gazte Eguneako bazkaritara hurbildutako batzuren familia argazkia.

MARIA LASA

“Euskal Herritik kanpo, euskara ulertu ez arren, espektakulua asko gustatzen zaie”

Zizurkilgo plazatik, Kepa Junkerarekin oholtzara

Maria Lasaren trikiti eta pandero doinuak ezagunak egingo zaizkie Zizurkilgo Andra Mari jaietara hurbiltzen diren bizilagunei. Egun, doinu horien oihartzuna haratago zabaldu da, Kepa Junkeraren “Sorginak” egitasmoaren baitan, estatu espainiarreko hainbat oholtza zapaldu baititu Mariak.

Nola sortu zitzaizun Kepa Junkeraren “sorginetako” bat izateko aukera?

Kasualitatez etorri zen aukera, sekulako zortea izan nuen. Mezu bat iritsi zitzaidan, Kepa Junkera neska talde baten bila ari zela zioena. Mezu horretan telefono zenbaki bat ageri zen, deitu eta frogatzen egin nuen. 2014 urte inguru horretan izango zen, urte hasieran-edo.

Ezagutzen zenituen gainerako sorginkideak?

Bai, txapelketako zirkuituan ibiltzen ginen baina harremana gerora hartu dugu, proiektu honetan. Lehen zazpi ginen eta zortzi gaur egun; ikasketekin uztartzerakoan, batek ezin badu ordezkari izan beste bat egon dadin. Ia denak gipuzkoa-

rrak gara eta bat Bilbo ingurukoa.

Zer nolako esperientzia izan da orain artekoa?

Askok ikasten ari gara. Hemen inguruan gutxi ibili gara: Donostia, Bilbo inguruan batez ere eta gero estatu espainiarrean. Izan garen herri askotan ez da euskara asko entzuten, baina abestien hitzak ez ulertu arren, musikarekin barneratu eta izugarri gustatzen zaie egin-dako espektakulua.

Eta proiektu honetan nola hartzen duzu parte?

Ahotsetan batez ere, eta baita panderoa, perkusioa edota trikitiarekin ere.

Urte batzuk badaramatzazu panderoa zein trikitiarekin joz...

Bai, 7 urtetatik daramat panderoa joz ahozka bikote nuela eta gero trikitiarekin ere hasi nintzen. Gustatu eta tartean txapelketetan parte hartzen ere hasi nintzen.

Aurrera begira, proiekturik bai esku artean?

Orain pixka bat geldituta gaude, bigarren diskoa prestatuta prozesuan baitago. Maiatza edo uda al-

dean aterako dela uste dut. Urtebete pasako dugu Kepa Junkerarekin, gero atse-denaldia, eta gero ea zer ateratzen den... edo agian gure artean zerbait sor dezakegu! Dena den, guk ere gure ikasketak ditugu. Zaila da dena uztartzen eta nik oraingoz ikasketak amaitzeko asmoa daukat; uztartzeko moduan dudak neurrian trikitiarekin eta panderoa joz jarraituko dut.

Esaiguzu...

Zizurkilgo pertsonaia bat...

Iker Goenaga, umea nintzenetik, betidanik, entzun izan dut.

Zizurkilgo leku bat...

Antatza bidean, Zizurkil aldera ematen duela, han goian badago gustatzen zaidan toki bat, hango paisaia.

Zer du faltan Zizurkilek?

Garraio sistema hobea esango nuke. Dena eskura ez izatean, maiz mugitu behar izaten dugu autoz hemen goitik.

Eta zer soberan? Ez dut ezer soberan ikusten.



B



Zizurkilgo Udala

Plaza Berri Aldizkaria
Herritarren Parte Hartze
eta Komunikazio Batzordea.

Lege-gordailua:
SS-1118-2011

Harremanetarako:
plazaberri.zizurkil@gmail.com
www.zizurkil.com

Zizurkilgo Udala,
Teodoro Hernandorena 6,
20.159 Zizurkil.
Tel. 943-691012
Fax 943-693200.

Udal Bulegoak, Aurrera Plaza 3,
20.159 Zizurkil.
Harrera Orokorra
Tel. 943-693066
Kultura, Euskara, Hezkuntza,
Gazteria y Kirola Saila
Tel. 943692495
Fax 943-693674.